


Arabazozo pikarta, soroetako neguko inbaditzailea

Migel Mari Elosegí*



gaur egun kantauri aldeko isurialde osoa betetzera ailegatu da. Mediterraniar aldera pasatuz gero, arabazozo gehiago ikusiko dugu, baina beste espeziekoak, arabazozo beltzak alegia. Bigarren espezie hau urte gutxitan era harrigarrian zabaldu da gure herrialdeko hegoaldean, eta bere banaketa pikartaren osagarria dela esan daiteke. Ea arabazozo pikarta antzeko espezieekin ez nahastea lortzen dugun. Zozoak badu arabazozoaren nolabaiteko antza, baina erraz bereiz daitezke, batez ere zozoa

FITXA TEKNIKOA

Arabazozo pikarta

Espezia:	<i>Sturnus vulgaris</i>
Familia:	esturnidoak
Ordena:	paseriformeak
Klasea:	hegaztiak

Iluntzea Pitillasko aintziran. Eguraldi nahasia dugu eta eguzkiaren azken izpiek morez koloreztatu dituzte hodei ilunak. Urrunean, ia beltza den hodei bat bizi-bizi mugitzen ari dela dirudi. Pixkanaka-pixkanaka inguratzen doakigu, eta ahozabalik, hodeia beharrean, hegaz-

ti-saldo ikaragarria dela ohartzen gara. Milaka dira estu-estu elkarrekin hegan datozen txoriak, uhinen modura gora eta behera edota zurrunbiloka sinkronia ezin hobean mugituz. Lezkadiaren parean planeatzen hasi dira, eta norbaitek agindu izan balie bezala, behera egin dute denek batera landaretzaren babesera.

Arabazozo pikarten saldoak Euskal Herri osoan ikus daitezke negu partean, baina negutiar huez gain bertan baditugu arabazozo pikarta habiagileak ere. Izan ere, 30 urte inguru dira espezie honen lehen kumaldia egiaztatu zela gure lurraldean eta geroztik, iparraldetik hegoalderantz etengabe hedatuz joan da. Honela, kopuru txikian bada ere,

Arabazozo pikarta, lumaje zoragarria duen hegaztia da.



M.M. Elosegí

J. Larrañaga



Kopuru txikian bada ere, gaur egun kantauri aldeko isurialde osoa betetzera ailegatu da arabazozo pikarta.

handixeagoa delako eta buztan luzeagoa duelako, eta boteka ibiltzen den bitartean arabazozoak oinez egiten duelako. Arabazozo pikarta (*Sturnus vulgaris*) eta beltza (*Sturnus unicolor*) bereiztea ez da hain erraza. Biak tamaina berdinekoak dira: 21,5 cm-ko luzera eta 75-90 gramoko pisukoak. Lumajea halaber, antzekoa dute. Oso ilunak dira, ia beltzak, irisazio eta erreflexu urdin, berde eta more deigarritz apainduta. Neguko janzkeran bi espezieak bereiz-


tea erraza da, pikartek (batez ere emeak) gorputz osoan pintta txuriak dituztelako, eta beltzek askoz ere gutxiago. Araldian ordea, pikartak orbain zuri gutxi ageri dituenek, beltzaren antz handiagoa izaten du.

Izaerari dagokionez, arabazozo pikartak taldezaleak dira ia urte osoan, baina milaka aleko saldo ikusgarri horiek, neguan besterik ez dira ikusten normalki. Txori hau bestalde, kantari xelebrea dugu. Soinu desberdin asko atera-

ratzeko gaitasuna du eta beste espezie batzuren kantua imitatzea gustatzen zaio. Zaletasun bitxi hauek badute zerikusirik ugalketarekin, dirudienek, soinu-sorta zabaleko arrek, bikotea topatzeko aukera handiagoa izaten baitute.

Txori azkarra oso, gizakiari etekinik ateratzen ongi aski jakin du, eta honi jarraituz bazter guztietara zabaltzea lortu du: soroak, zuhaitziak, nekazal inguruak, herrietako parkeetara eta abar. Basoen atzerakada eta belar-soro eta alorren ugaritzea gainera, mesedegarri gertatu zaio arabazozoari. Hegazti honen arrakastaren beste arrazoiatariko bat, mota desberdinetako elikagaiak aprobetxatzeko duen erraztasuna da. Alor eta belar-soroak miatuz, animalia omniboro hauek intsektuak, haziak, fruituak, eta abar mokoratzen dituzte. Neguko saldo handi horiek berriz, mahasti, olibondo, eta oro har, uztatan sobratutako hondakinen bila aritzen dira. Hain talde handietan elkartzearen ondorioz, zomorroen kontrolean lan estimagarria burutu dezakete, baina arrazoi berberetatik, uztatan txikizioak egitera ailega daitezke.

Udaberria ugaltzeko sasoa da arabazozo pikartarentzat ere, eta ondorioz, habia egiteko zuloren baten bila hasiko da. Gehienetan zuhaitz-zuloa (eta haritza batik batik) aukeratu arren, tarteka, har-kaitz-labarra, zurezko habi artifiziala, edo eraikuntzaren bateko zirrikitua aukera dezake. Azken honen adibide dira, Jaurrietako etxe batean, edo Kortezubiko elizan egindako habiak. Barnealdean ohantze goxoa antolatzen ondoren, emeak 5 bat arrautza jartzeko dituzte. Aipagarria da arabazozo pikarta emeak, bere habian arrautzak jarri aurretik, beste habiren batean errun dezakeela arrautzaren bat kukuak egiten duen antzera. Kukuak ez bezala ordea, gero bere txitaldia atera-



M.M. Elozegi

tzen du. Berak hazi ditzakeenaz gain, auzoko bati arrautza gehiago utziz bere arrakasta emenda dezake, kume gehiago ekoitziz. Edozein modutan ere, 30 mm-ko arrautza urdin argi hauen txitaketa, 11-13 egunez luzatzen da. Lumarik gabe eta itsu jaiotzen diren txito hauek berehala hazten dira, proteinatan hain aberats diren ornogabeek elikatuta. Izan ere, lehen 12 egunetan, 5 gramo pisatzetik 60 gramo hartzera pasatzen dira, eta 18-22 egun beteta hegan egiteko gai dira jadanik. Adin horretan beren kolortasua nahikoa desberdina gertatzen da helduenaren aldean: disdirarik gabeko lumaje arrea, eta kolortasua argiagoa paparoan. Habitik aterata ere, gurasoak kumeen inguruan ibiliko dira lehen egunetan, jana eman eta aurrera egiten laguntzeko. Gehienetan, gurasoak bigarren txitaldi bat ere ateratzen saiatzen dira.

Migratzaile partzialak izaki, udazkenarekin batera Europa iparraldeko arabazoen hegoalderantzko migrazioa ematen da. Hegazti honen paseko saldoak, bereziak izaten dira, txoriek oso estu joateko ohitura baitute. Hegakera ere, bitxia suertatzen da, zuzen-zuzen eta hegal-kolpe azkarrak emanez egiten dutelako, batez besteko 34 km orduko abiaduraz. Ehiztariek, aspalditik zuten hegazti



Azken urteotan, bai Euskal Herrian bai Europako mendebaldean ugartu egin da. Euskal Herrian, iparraldea betetzen du.

honen ohitura eta mugimenduen berri, eta horren lekuko ditugu hartzen dituen euskarazko izen

ezberdinak: tordantxa, zozabarra, artxoxua, eta abar.

Hegazti honek duen banaketari dagokionean, ia Europa osoan aurki dezakegu eta esan bezala, azken urteotan populazioek gora egin dute mendebaldean zabalduz. Gizakiak gainera, beste leku askotara eraman du eta animalia honen arrakastaren adibide ona dugu Ipar Ameriketan gertatutakoa. 1890 eta 91-n, Europatik eramandako 120 eta 160 arabazozo pikarta askatu ziren New York-en. 1950. urterako, Estatu Batuetan zehar zabaldurik zegoen eta populazioa milioi bat ale ingurukoa zela estimatu zen.



* Biologian lizentziatua

Okerrak zuzentzen

Aurreko zenbakian "Orkatzaren kudeaketa" izenburuko artikuluan bi oker egin genituen, biak 27. orrialdean.

- 1.- Argazkiaren oineko azken esaldian "Argazkietan, bere lurraldea markatzeko arrak egin duen seinalea ikus daiteke, hau da, botatako adarra." zihoen eta "Goiko argazkian bere lurraldea markatzeko arrak adarrekin egin duen seinalea ikus daiteke. Behekoan berriz, arrak botatako adarra." behar zuen.
- 2.- Orrialdeko bereko lehen esaldian zera zihoen: "Arrak atzean giltzurrun-antzeko marrazki zuria du eta emeak, berriz, bihotz-itxurakoa; emeak, halaber, azpialdean ile zurizko mototsa ere badu." eta "Arrak atzean giltzurrun-antzeko marrazki zuria du eta emeak, berriz, bihotz-itxurakoa, ile zurizko mototsa dela medio." behar zuen.